



**ERABAKIA, TRINTXERPE FUTBOL TALDEAK GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOAREN
KIROL DIZIPLINA ETA LEHIAKETAKO BATZORDEAREN 2015eko MARTXOAREN 10eko
ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA**

Espediente-zenbakia: 15/2015

AURREKARIAK

Lehena.- Trintxerpe Kirol Elkarteak errekurtsua aurkeztu du Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak 2015eko martxoaren 10ean hartutako Erabakiaren aurka; erabaki horren bitartez, Trintxerpe Kirol Elkarteak aurkeztutako errekurtsua baietsi zen eta Aloña Mendi K.E. taldea ohartarazpen publikoarekin zigortu, 16.C eta 17.3.F artikuluetan xedatutakoari jarraiki, baina partidaren gainerako zirkunstantziak aldatu gabe.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen eta Gipuzkoako Futbol Federazioari espedientea eskatu zion; era berean, Federazio horri eta Aloña Mendi K.E. taldeari entzunaldi-izapidea ere eman zien.

Hirugarrena.- 2014ko martxoaren 31n, Gipuzkoako Futbol Federazioak eskatutako espedientea helarazi zuen, Federazio horren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak egindako alegazio-idazkiarekin batera. 2015eko apirilaren 14an, Aloña Mendi K.E. taldearen alegazio-idazkia jaso genuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsu hau aztertzeko eskumena, halaxe xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.



Era berean, aipatzekoa da uztailaren 22ko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 22. artikuluan eta uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak, Eskola kiroleko lehiaketetako diziplina-araubideari buruzkoak, 4. artikuluan, xedatzen dutena; izan ere, artikuluko horren arabera, honako hauei dagokie kirol-arloko diziplina-ahalmena erabiltzea: lehen instantzian, parte-hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei; eta bigarren instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari.

Bigarrena.- 2015eko martxoaren 8an, Haur Txiki kategoriako partida jokatu zen CD Trintxerpe taldearen eta Aloña-Mendi K.E. taldearen artean; Trintxerpe Kirol Elkartek partida aurkaratu zuen, Aloña Mendi taldea soilik 13 jokalarirekin aurkeztu zelako partidara eta horrek ez duelako betetzen Batzar Nagusian onartutako araua, erregistratutako jokalarien % 80 zerrendan sartzeari dagokionez.

CD Trintxerpe taldeak aurkeztutako aurkaratzea eta Aloña Mendi taldeak egindako alegazioak aintzat hartuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak honako hau erabaki zuen: *“Trintxerpe C.D. taldeak aurkeztutako demanda baiestea, eta Aloña Mendi K.E. taldea ohartarazpen publikoarekin zigortzea, 16.C eta 17.3.F. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, baina partidaren gainerako zirkunstantziak aldatu gabe.”*

Hirugarrena.- CD Trintxerpe taldeak Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordearen Erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsioan, arau-haustearen tipifikazioa eta Aloña Mendi K.E. taldeari jarritako zehapena aldatzea eskatzen da, taldeak egindako arau-haustea larritzat jotzen delako 391/2013 Dekretuaren 15.e) artikuluan, eta arau-hauste horri partida galdutzat emateko zigorra baitagokio.

Bere nahia justifikatzeko, errekurtsioa egin duen taldeak zera argudiatu du, laburbilduta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Klubek Batzarrak 10 zenbakia duen zirkularra onartu zuela eta zirkular hori nahitaez betetzekoa dela kategoria horretan parte hartzen duten klub edo talde guztiei dagokienez; Aloña Mendi K.E. taldeak erregistratuta dituen 20 jokalarietatik 13rekin agertu zela partidara, eta arauaren arabera, plantilla osatzen duten jokalarien % 80 sartu behar da



zerrendan –kasu honetan, 16 jokalaria izango lirateke-; 391/2013 Dekretuaren 15.e) artikuluan, arau- hauste larrietan sartzen dela “Lehiaketan arauak ez betetze hutsa” eta, kasu honetan, ez-betetzea garrantzitsua izan dela, 20 jokalarietatik 7 ez zirelako agertu partidan.

Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak entzunaldi-izapidean aurkeztutako alegazio-idazkian agerian geratzen da errekurtsua jarri duen taldearekiko desadostasun bakarra ez-betetzearen ondorio juridikoa dela, eta lehiaketa arautzen duen zirkularrarekin bat etorrita jokatu dutelakoan daude; izan ere, zirkularrari jarraiki, “*Araua ez bada betetzen eta salaketa jarri ostean, Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak erreklamazioa aintzat hartuko du eta ahalik eta ebazpen egokiena emango du*”.

Bestalde, Aloña Mendi KE taldea ados dago Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordearen Erabakiarekin, eta ez-agertzea ez zela nahita izan adierazi du. Idazkiarekin batera, lau jokalariren gurasoen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu du, partida jokatu behar zen egunean semea gaixo zutela esanez; halaber, Osakidetzako mediku baten ziurtagiriak ere aurkeztu ditu, hiru jokalaria martxoaren 3tik 9rako aste horretan sukarrarekin egin zirela eta Oñatiko osasun-etxean aztertu zituztela adierazteko.

LAUGARRENA.- Errekurtsua egin duen alderdiaren eta dagokion Federazioaren jarrerak zeintzuk diren zehaztu ostean, eztabaidagai dugun alderdia arautzen duen araudia aztertuko dugu.

Aldez aurretik, 391/2013 Dekretuaren 21.4 artikuluan xedatzen dena gogoraraziko dugu: “*Diziplina-organoek, kirol-arloko diziplina-ahalmena gauzatzean, egoki irizitako mailako zigorra jar dezakete, gertaeren izaera, pertsona erantzulearen nortasuna, arau-haustearen ondorioak eta inguruabar larrigarri edo aringarriak aintzat hartuta.*”

Aztergai dugun kasuan, Aloña Mendi K.E. taldeak 10. zirkularraren 4. puntua ez du bete; hain zuzen ere:



“Batzar Nagusiak erabaki duenez, plantilla osatzen duten jokalarien % 80 sartu behar da partida bakoitzeko jokalaria-zerrendan. Araua ez bada betetzen eta salaketa jarri ostean, Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzardeak erreklamazioa aintzat hartuko du eta ahalik eta ebazpen egokiena emango du.”

KJEB honek ezin ditu onartu errekurtsua jarri duen taldearen alegazioak, honako arrazoi hauengatik: 1) 10 zenbakidun zirkularra onartzeko eskuduna den organoak nahi izan balu ez-betetze horri dagokion zigorra partida galdutzat ematea izatea, esanbidez xedatuko zukeen horrela, zirkular beraren 3. puntu horixe egin baitu; 3. puntu horretan, aktan erregistratutako jokalariek finkatutako gutxieneko denboraz jokatzeko ez duten kasuetarako partida galdutzat emateko zigorra ezartzen da; eta, 2) arau-hauste hori 391/2013 Dekretuaren 15.e) artikuluan arau-hauste larritzat tipifikatzeak ez du esan nahi partida galdutzat emateko zigorra ezarri behar denik automatikoki, 17.2 artikuluan hainbat zehapen aurreikusten baita horrelako arau-hausteetarako, besteak beste, “ohartarazpen publikoa”. Beraz, Lehiaketa Batzardearen ustez Aloña Mendi KE taldeak arau-hauste larria egin balu ere, ohartarazpen publikoaren zigorra jar ziezaiokeen.

Nolanahi ere, 10 zenbakidun zirkularraren 4. puntu xedatutakoari jarraiki, Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzardeari dagokio salaketa ahalik eta egokien ebaztea, eta horixe egin du, kasu honetan, Batzarde honek, 391/2013 Dekretuaren 16.c) artikuluan tipifikatutako arau-hauste arin bat –Kirol-arauen aurkako jokabide nabarmenak, arau-hauste larri edo oso larri gisa sailkatuta ez badaude– egiteagatik Aloña Mendi KE taldeari ohartarazpen publikoaren zigorra jarri baitio, Dekretu horren 17.3.f) artikulua arau-hauste arinetarako aurreikusitako zigorra izanik.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzardeak honako hau

ERABAKI DU:

CD Trintxerpe taldeak Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzardearen 2015eko martxoaren 10eko Erabakiaren aurka jarritako errekurtsua ezestea.



Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzak 11.

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA